

2018KO IRAILAREN 27KO OSOKO BILKURAREN ERABAKIAK

1. (berria) Adierazpen instituzionala, Maguette Mbeugou andrearen erailketa gaitzesteko. [11\11\05\00\00052]

Legebiltzarburuak adierazpena irakurri du.

"Eusko Legebiltzarrak biziki eta erabat gaitzesten du Maguette Mbeugou andrearen erailketa bortitza. Emakumeen aurkako indarkeriaren beste gertakari baten biktima izan da; larriagoa egiteko, hiltzaileak bizitza kendu dio bere bi alaben aurrean. Legebiltzarrak bere laguntza eta dolumina agertzen die biktimen senideei eta hurrekoei.

Eusko Legebiltzarrak erailketa bortitz hau gaitzesten du, emakumeen kontrako indarkeria Euskaditik kanpo ere nabarmenki jasan den aste honetan. Gaitzesten ditugu emakumeen aurkako indarkeriaren edo sexu-bereizkeriaren agerpen guztiak ere. Adierazi nahi dugu, beste behin, sexu-indarkeria dela emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunen agerpenik larriena eta ezberdintasunok sorburu dutela botere-harremanetan eta emakumeak menderatzeko harremanetan.

Eusko Legebiltzarrak herritarrei eskatzen die har ditzatela konpromiso pertsonal eta kolektiboak emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde. Era berean, erakundeona izanda indarkeria hura erazteko erantzukizuna, erakundeei eskatzen die plan integralak gara ditzagun, emakumeen aurkako indarkeria behin betiko desgerrarazteko behar diren baliabideez hornituak, halako moldez, non ez den emakumeen aurkako indarkeriazko beste egintzarik izango eta, are gutxiago, Maguette Mbeugou andrea eraman duen bezalako erailketarik".

ACUERDOS DEL PLENO CELEBRADO EL DÍA 27 DE SEPTIEMBRE DE 2018

1. (nuevo) Declaración institucional de condena del asesinato de doña Maguette Mbeugou. [11\11\05\00\00052]

La presidenta da lectura a la declaración.

"El Parlamento Vasco muestra su más enérgica condena y manifiesta su más absoluto rechazo por el asesinato de doña Maguette Mbeugou, víctima de otro episodio de violencia contra las mujeres, todavía más brutal cuando su asesino la mató en presencia de sus dos hijas. El Parlamento muestra su apoyo y condolencia a los familiares y allegados de las víctimas.

El Parlamento Vasco condena este brutal asesinato, sucedido en una semana en la que también fuera de Euskadi se han sufrido casos de violencia contra las mujeres. Condenamos toda manifestación de violencia contra las mujeres o acto de discriminación sexual. Entendemos que la violencia sexista es la expresión más grave de las desigualdades entre mujeres y hombres, derivadas de relaciones de poder y de sometimiento de las mujeres.

El Parlamento Vasco invita a la ciudadanía a adoptar compromisos personales y colectivos a favor de la igualdad entre mujeres y hombres. Así mismo, insta a las instituciones, que tenemos una responsabilidad crucial en la erradicación de esa violencia, a que desarrollemos planes integrales dotados de los recursos necesarios para lograr su definitiva desaparición, de tal modo que no se vuelva a producir ningún acto de violencia contra las mujeres ni, mucho menos, asesinatos como el que ha costado la vida a doña Maguette Mbeugou".





2. (deialdiko aldez aurreko gaia) Behin betiko ebaztea ekainaren 28ko osoko bilkurako bozketan izandako berdinketak, Erregelamenduaren 92.1 artikulua adierazitakoari jarraituz, Elkarrekin Podemos talde parlamentarioak egindako legez besteko proposamenari dagokionez, EITBko zuzendari nagusiari buruz. [11\11\02\01\00360]

Ezetsi egin da.

2. (asunto previo de la convocatoria) Resolución definitiva de los empates ocurridos en las votaciones del pleno celebrado el día 28 de junio, de acuerdo con el artículo 92.1 del Reglamento, en relación con la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Elkarrekin Podemos, relativa a la directora general de EITB. [11\11\02\01\00360]

Rechazada.





3. (deialdiko 1. puntua) Euzko Abertzaleak, EH Bildu, Elkarrekin Podemos, Euskal Sozialistak eta Euskal Talde Popularrak talde parlamentarioek egindako legez besteko proposamena, enpresa-eredu inklusibo parte-hartzaile bat sustatzeari buruz. Eztatanda eta behin betiko ebazpena. [11\11\02\01\00400]

Jatorrizko testua onetsi da.

85/2018

"Enpresa-eredu inklusibo parte-hartzaile baterantz aurrera egiteko, Eusko Legebiltzar honek:

1. Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio presta dezala eta inplementatu dezala jarduketa-plan bat enpresarako euskal eredu inklusibo parte-hartzaile bat sustatzeko, legegintzaldi honetan garatuko dena. Besteak beste, politika hauek jasoko dira plan horretan:
 - a) Eredu inklusibo parte-hartzailearen ezaugarriak dituzten kudeaketa-sistema partizipatiboaren hedapenari eta inplementazioari ematen zaion babesean jarraitzea eta sakontzea, eta babes hori arlo hauetara zabaltzea: praktika onenak definitzea eta jartzea euskal enpresen barne-komunikaziorako politiken ezarpenean, helburuen definizioa, adierazleen hautapena..., hori guztia funtsezkotzat jotzen baita proposatutako aldaketarako.
 - b) Era berean, langileek enpresaren emaitzetan parte hartzeko sistemen ezarpena bultzatzea, eta, horretarako, EAEen zein Europa mailan arrakastarik handieneko formulak identifikatzen ahalegintzea.
 - c) Langileak enpresaren kapitalean txertatzeko aukera erraztea, langile bakoitzaren ekarpena egiteko laguntza-bide batzuk gaituz.
 - d) Nazioarteko mailako praktika onenak identifikatzea, langileek jabetzan parte

3. (punto 1 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por los grupos parlamentarios Nacionalistas Vascos, EH Bildu, Elkarrekin Podemos, Socialistas Vascos y Popular Vasco, en relación con la promoción de un modelo inclusivo-participativo de empresa. [11\11\02\01\00400]

Aprobado el texto original.

85/2018

"Para avanzar hacia un modelo inclusivo-participativo de empresa, este Parlamento Vasco:

1. Insta al Gobierno Vasco a que elabore e implemente un plan de actuación para la promoción de un modelo inclusivo-participativo vasco de empresa para su desarrollo en la presente legislatura, en el que contemple, entre otras, las siguientes políticas:
 - a) Continuar y profundizar en el apoyo a la difusión e implementación de sistemas participativos de gestión característicos del modelo inclusivo-participativo, ampliándolo a la definición e implantación de las mejores prácticas en el establecimiento de políticas de comunicación interna en las empresas vascas, definición de objetivos, selección de indicadores..., que se considera clave para el cambio propuesto.
 - b) Estimular igualmente la implantación de sistemas de participación de los trabajadores en los resultados de la empresa, colaborando en la identificación de las fórmulas de mayor éxito tanto en la CAV como a nivel europeo.
 - c) Facilitar la incorporación de los trabajadores en el capital de la empresa, habilitando vías de ayuda para realizar la aportación de cada trabajador.
 - d) Identificar las mejores prácticas a nivel internacional en lo que se refiere a





hartzea sustatzea lagunduko duten zerga-politikei dagokienez.

- e) Formula juridiko egoki bat eta, behar izanez gero, lege bat idazteko premia azterzea. Lege horrek oraingo arauketa osoa hobetuko du eta legetresna propioa diseinatuko du, boterearen eta emaitzen banaketa- eskakizun berrietara hobeto egokitua, inplikatura dauden langileek ezartzen dituzten irizpide berariazkoen arabera.
- f) Partaidetza duten enpresen erregistro bat sortzea. Erregistro horretan inskribatuko dira ezartzen den gutxieneko mugatik gora dagoen kapitaleko partaidetzaren portzentajea duten enpresak, horrek hirugarrenen aurrean segurtasun juridikoa ematen lagunduko baitie horrelako enpresen sustapenerako ematen diren neurriei.
- g) Eredu inklusibo parte-hartzailearen ezarpena ebaluatzeko eredu baten lanketan laguntzea, *check list* baten bidez, horrek enpresei lagunduko baitie egindako aurrerapenak identifikatzen.
- h) Proposatutako eredu inklusibo parte-hartzailea sustatzeko asmoz enpresaburuei eta langileei zuzendutako sentsibilizazio- kanpainetan laguntzea.
- i) Eredu horren ezarpenean nabarmentzen diren enpresei prestigioa ematea, horri buruzko sari edo aintzatespenen bat antolatuz.
- j) Honako alderdi hauei buruzko pres- takuntza-jarduera batzuk garatzea: enpresa-kudeaketa, estrategia..., honako hauei zuzenduak: enpresa- batzordeetako kide diren pertsonak, ordezkari sindikalak, sindikatu- etako liberatuak..., bai modu berezi batean bai modu bateratu batean inplikaturako enpresetako zuzendariekin.
- k) Aipatutako ekintza-planen eredia eta gauzatzea hedatzeko beharrezko diren baliabideak aurreikustea aurrekontu

políticas fiscales que ayuden a promover la participación en la propiedad.

- e) Estudiar una fórmula jurídica adecuada y, en su caso, la elaboración de una ley que perfeccione la reglamentación actual y diseñe un vehículo legal propio mejor adaptado a los requerimientos de reparto del poder y de los resultados en función de los criterios específicos que establezcan los trabajadores implicados.
- f) Crear un registro de empresas participadas en el que se inscriban aquellas con un porcentaje de participación en el capital superior al límite mínimo que se fije y que pueda ayudar a dar seguridad jurídica frente a terceros a las medidas que se arbitren en su promoción.
- g) Colaborar en la elaboración de un modelo de evaluación de la implantación del modelo inclusivo-participativo, con un *check list* que ayude a las empresas a identificar los avances registrados.
- h) Colaborar en campañas de sensibilización dirigida a empresarios y a trabajadores para fomentar el modelo inclusivo-participativo propuesto.
- i) Prestigiar a las empresas que destaquen en la implantación del modelo mediante la organización de algún premio o reconocimiento al respecto.
- j) Desarrollar actividades de formación sobre aspectos de gestión empresarial, estrategia..., dirigidas a personas componentes de comités de empresa, delegados sindicales, liberados de sindicatos..., tanto de forma especial como de forma conjunta con directivos de las empresas implicadas.
- k) Prever presupuestariamente los recursos necesarios para la difusión del modelo y la ejecución de los





aldetik.

2. Euskal instituzio guztiei eskatzen die ezen, zeinek bere eskumenen arabera, aplikatu ditzatela beharrezko irizten dituzten neurri guztiak, langileek enpresen emaitzetan eta kapitalean parte hartzea faboratuko dutenak, eta zabal ditzatela enpresa horietara guztietara hala gure artean nola beste herrialde batzuetan dauden praktika onenak, eta azter dezatela, besteak beste, langileek lan egiten duten enpresaren kapitalari egiten dizkieten ekarpenek borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeei egiten dizkieten ekarpenen zerga-tratamendu bera izan dezatela.
3. Legebiltzar honetako Lan eta Justizia Batzordeari eskatzen dio egin dezala hemen onartzen diren gomendioen betetze mailari buruzko urteko segimendua".

planes de acción indicados.

2. Insta al conjunto de las instituciones vascas a que, de acuerdo con sus respectivas competencias, apliquen cuantas medidas se estimen necesarias que favorezcan la participación de los trabajadores en los resultados y capital de las empresas, extendiendo a todas ellas las mejores prácticas existentes tanto entre nosotros como en otros países, y estudiando, entre otras, que las aportaciones de los trabajadores al capital de la empresa en que trabajan tengan el mismo tratamiento fiscal que las aportaciones que realizan a las entidades de previsión social voluntaria.
3. Insta a la Comisión de Trabajo y Justicia de este Parlamento a que haga un seguimiento anual del cumplimiento de las recomendaciones aquí aprobadas".





4. (deialdiko 2. puntua) EH Bildu talde parlamentarioak egindako legez besteko proposamena, lan- eta eskola-ordutegiak harmonizatzeko beharrezkoa den prozesua egiteko azterketa bat egiteari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [11\11\02\01\00423]

EH Bildu, EP eta PV-ETP taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

86/2018

"Eusko Legebiltzarrak Jaurlaritzari eskatzen dio:

1. 6 hilabeteko epean egin dezala azterketa bat bizitza pertsonalaren, lan-bizitzaren eta eskola-bizitzaren arteko haustura zuzentzeko eta eskola-ordutegiak harmonizatzeko beharrezkoa den prozesuari buruz, elkarlanean berdintasunaren eta emakumeen eskubideen esparruan lan egiten duten entitateekin, Hezkuntza Komunitatearekin, eragile sozioekonomikoekin, foru-aldundiekin eta Eudelekin.
2. Ikuspegi horretatik, identifikatu eta analizatu ditzala gure inguruan helburu beroriekin buruturiko esperientziak.
3. Azter ditzala Hezkuntza Komunitatearekin, berdintasunaren eta emakumeen eskubideen defentsaren esparruan lan egiten duten entitateekin, eragile sozioekonomikoekin, foru-aldundiekin eta Eudelekin batera, EAEko adingabeen egoera eta beharrianak eskola-saioa amaitutakoan eta eskolako oporraldietan, amorez eta administrazio publikoak denboraldi horietan hezkuntza-aisialdiko eta zaintzako espazioak bermatzeko behar diren bitartekoak hobetu eta eskaintzeko.
4. Martxan jar dezala 2019-2020 ikasturtean familiako, eskolako eta laneko ordutegiak harmonizatzeko esperientzi pilotu bat".

4. (punto 2 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario EH Bildu, sobre la realización de un estudio para llevar a cabo el proceso necesario para la armonización del horario laboral y del escolar. [11\11\02\01\00423]

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos EH Bildu, EP y PV-ETP.

86/2018

"El Parlamento Vasco solicita al Gobierno:

1. Que en el plazo de 6 meses lleve a cabo un análisis sobre el proceso necesario para corregir la ruptura entre la vida personal, laboral y escolar y para armonizar los horarios escolares, en colaboración con las entidades que trabajan en el ámbito de la igualdad y los derechos de las mujeres, la Comunidad Educativa, los agentes socio-económicos, las diputaciones forales y Eudel.
2. Desde esta perspectiva, que identifique y analice experiencias realizadas en nuestro entorno con estos mismos objetivos.
3. Que estudie junto con la Comunidad Educativa, las entidades que trabajan en el ámbito de la igualdad y la defensa de los derechos de las mujeres, los agentes socio-económicos, las diputaciones forales y Eudel, la situación y necesidades de la población menor de edad al finalizar la jornada escolar y durante los períodos de vacaciones escolares en la CAV, al objeto de mejorar y dotar desde la administración pública los medios necesarios para garantizar espacios de ocio educacional y cuidados en dichos períodos.
4. Que ponga en marcha una experiencia piloto de armonización de los horarios familiares, escolares y laborales el curso escolar 2019-2020".





5. (deialdiko 3. puntua) Elkarrekin Podemos talde parlamentarioak egindako legez besteko proposamena, "De Miguel auziari" buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [11\11\02\01\00336]

EH Bildu eta EP taldeen hitzartutako erdibideko zuzenketaren 1. eta 2. puntuak onetsi dira.

87/2018

- "1. Eusko Legebiltzarreko Osoko Bilkurak gaitzetsi egiten du adierazpen edo ekintza publiko oro, Ertzaintzak eta Fiskaltzak 'De Miguel' izenaz ezagututako kasuaren instrukzioan egindako lana zalantzan jartzeko asmoz egin dena edo egingo dena, eta epaiketa baldintzatu edo kasuaren larritasuna edo ondorio politiko sakonak gutxietsi ahal dituen.
2. Eusko Legebiltzarrak mespretxatu egiten du legez kanpoko onura lortzeko asmoz botere publikoaren erabilera okerreko jardunbide oro, eta baita jarduteko era hori justifikatu, ezkutatu edo babesteko helburua duen jardunbide oro".

5. (punto 3 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Elkarrekin Podemos, relativa al "caso De Miguel". [11\11\02\01\00336]

Aprobados los puntos 1 y 2 de la enmienda transaccional suscrita por los grupos EH Bildu y EP.

87/2018

- "1. El Pleno del Parlamento Vasco reprueba cualquier declaración o acto público que se haya realizado o se realice con la intención de poner en duda el trabajo desarrollado por la Ertzaintza y Fiscalía en la instrucción del conocido como 'caso De Miguel' y que pudiera condicionar el juicio o minusvalorar la gravedad del caso o sus profundas consecuencias políticas.
2. El Parlamento Vasco desprecia cualquier conducta que conlleve una mala utilización del poder público con el objetivo de conseguir un provecho ilegal, así como cualquier conducta que tenga por fin la justificación, ocultamiento o protección de este proceder".





6. (deialdiko 4. puntua) Mozioa, M.^a del Carmen López de Ocariz López de Munain Euskal Talde Popularreko legebiltzarkideak aurkeztua, nekazaritzako elikagaien euskal arloaren eta horrek Agenda 2030ari eta garapen jasangarrirako helburuei egin diezaiekeen ekarpen efizientearen gainean. Eztatanda eta behin betiko ebazpena. [11\11\03\00\00092]

EA-NV, EP, SV-ES eta PV-ETP taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

29/2018

"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio:

- Euskadiko Gastronomia eta Elikaduraren 2017-2020 aldirako Plan Estrategikoaren testuinguruan analisi bat egin dadila, nekazaritzako elikagaien arloak garapen jasangarrirako helburuei (GJH) egin diezaiekeen ekarpenari buruzkoa. Analisi horretan, Euskadiko nekazaritzako elikagaien sektoreak aurre egin behar dien erronkak jasoko dira eta horiek gainditzeko gakoak proposatuko dira.
- Alor honetan izapidetzen den araudi orori 2030 Agenda betetzerakoan espero den inpaktuaren gaineko memoria eranstea, Euskadi Basque Country 2030 Agendan ezarritakoarekin bat.
- Urteko jarraipen-txostena egitea Elikadura eta Gastronomiaren balio-katearen eremuan egiten diren eta 2030 Agendan ezarritako helburu eta xedeekin zerikusia duten jarduketari buruz.
- Nekazaritzako elikagaien sektorearekin batera, eta zehazki Elikaduraren Klusterrarekin batera, gida sektorial bat landu dadila, nekazaritzako elikagaien katearen maila guztietako enpresei laguntzeko GJHen aldeko ekintzak diseinatzeko, prozesuen eraginkortasuna hobetzeko, baliabideen eta energiaren kontsumoa murrizteko, eta ingurunearen gaineko ingurumen-inpaktua minimizatzeke, betiere ekonomia zirkularraren printzipioak kontuan izanik.

6. (punto 4 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva de la moción presentada por D.^a M.^a del Carmen López de Ocariz López de Munain, parlamentaria del grupo Popular Vasco, referente al sector agroalimentario vasco y su contribución eficiente a la Agenda 2030 y los objetivos de desarrollo sostenible. [11\11\03\00\00092]

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos EA-NV, EP, SV-ES y PV-ETP.

29/2018

"El Parlamento insta al Gobierno Vasco a

- Que en el contexto del Plan Estratégico de la Gastronomía y la Alimentación de Euskadi 2017-2020, se realice un análisis de la contribución del sector agroalimentario a los ODS (Objetivos de Desarrollo Sostenible) en el que se especifiquen los retos a los que se enfrenta el sector Agroalimentario de Euskadi y proponga las claves para superarlos.
- Acompañar toda normativa que se tramite en este ámbito de una Memoria del impacto esperado sobre el cumplimiento de la Agenda 2030, conforme a lo establecido en la Agenda Euskadi Basque Country 2030.
- Elaborar un informe anual de seguimiento de las actuaciones desarrolladas en el marco de la Cadena de Valor de la Alimentación y Gastronomía vinculadas con los objetivos y metas establecidas en la Agenda 2030.
- Realizar un trabajo colaborativo junto con el sector agroalimentario y en particular con el Clúster de Alimentación, para la elaboración de una guía sectorial que ayude a las empresas de los diferentes eslabones de la cadena agroalimentaria a diseñar acciones para contribuir a los ODS, para mejorar la eficiencia de sus procesos, reducir el consumo de recursos y energía y minimizar el impacto ambiental sobre el entorno todo ello teniendo en cuenta los principios de la economía circular.





- Zabaldu ditzala, nekazaritzako elikagaien sektoreko hiru mailetako (lehena, industrial eta banaketa) eragile eta enpresen artean, 2030 Agenda, bertan bildutako garapen jasangarrirako 17 helburuak eta horien ondoriozko jomugak, toki-mailako erronkak gainditzeko lan egiteko helburuarekin, GJHak maila globalean lortzen laguntzeko.
- Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eta gainerako euskal erakundeei eskatzen die, 2020rako Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berderako Programaren esparruan, lehenetsi dezatela Euskadi barruko eta kanpoko jardueran garapen jasangarrirako helburuen betetze mailari ekarpen handiena egin diotela egiaztatzen duten nekazaritzako elikagaien euskal arloko eragileen kontratazioa".
- A divulgar la agenda 2030, sus 17 Objetivos de Desarrollo Sostenible y las metas que de ellos se derivan, a los agentes y empresas de los 3 eslabones del sector agroalimentario, primario, industrial y distribución, con el objetivo de trabajar en la superación de los retos a nivel local para contribuir al logro de los ODS a nivel global.
- El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco y al resto de instituciones vascas a que, en el marco del Programa de Compra y Contratación Pública Verde del País Vasco 2020, prioricen la contratación de aquellos agentes del sector agroalimentario vasco que acrediten una mayor contribución al cumplimiento de los Objetivos de Desarrollo Sostenible en su actividad dentro y fuera de Euskadi".





7. (berria) Adierazpen instituzionala, Euskaltzaindiaren sorreraren 100. urteurrenari buruz. [11\11\05\00\00053]

Legebiltzarburuak adierazpena irakurri du.

"Aurten ehun urte beteko dira Euskaltzaindia sortu zenetik. Mende oso bat Akademiak euskararen alde, bai bera ikertzen, bai bera jagoten.

Orain ehun urte, orduko euskal herritarren ordezkari instituzionalek ikusi zuten beharrezkoa zela erakunde bat, euskararen bidea prestatu eta bidean aurrera zuzen jarraitzen gidatuko zuena. Erakunde hori pertsona adituek osatu behar zuten. Akademiak euskararen ezberdintasunak aztertuko zituen, hutsuneak bete, hitzen forma eta esangura finkatuko zituen, eta idazteko modu bakar bat ezarri; euskalkietatik bat ere baztertu gabe, haiek elkarren osagarri eta elkarren aberasgarri erabiliko zituen, eta, azkenean, erakunde horrek hizkuntza garbia, akasgabea eta jakintza-arlo guztietarako egoki eta erabilgarria izango zena ezarriko zuen. Horrela irudikatu zuten Euskaltzaindia garaiko Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako ordezkari instituzionalek euskararen esparru osorako akademia bat eragin zutenean.

Euskaltzaindiaren sorreraren 100. urteurrena ospatzen dugun honetan, euskara batuaren sorreraren 50. urteurrena ospatzen dugu ere. 1918. urtean egin ziren Euskaltzaindia eratzeko lehendabiziko urrats haiek, eta hura izan da, hain zuzen ere, euskara batuaren sorrera eta izaera gidatu duen erakundea.

Aurten 50 urte bete dira Euskaltzaindiak Arantzazuko Batzarra antolatu zuenetik. Batzar hura hartu ohi da, sarritan, euskara batuaren abiapuntu-datatzat. Euskara batua sortzeko asmoak, ahaleginak eta saiakerak lehenago ere hasiak ziren –euskara batuaren sorreran bereziki esanguratsua izan zen 1964. urtean egindako Baionako Biltzarra–, baina Arantzazuko Batzarra izan zen euskara batua sortzeko prozesuari abiapuntu sendo eta formal garrantzitsu bat eman ziona, abiapuntua, alegia; 1968az geroztik euskara batuak ibilbide bizkorra eta sendoa osatu du, eta gizartearen esku utzi du euskara normaltasunez erabili ahal izateko tresna emankorra eta eraginkorra, erabilera arloa edo eremua edozein dela ere.

7. (nuevo) Declaración institucional relativa al centenario de la creación de Euskaltzaindia. [11\11\05\00\00053]

La presidenta da lectura a la declaración.

"Este año se cumplen cien años de la creación de Euskaltzaindia. Todo un siglo de la Academia trabajando por el euskera, tanto investigándolo como cuidando de él.

Hace un siglo, los representantes institucionales de la ciudadanía vasca de la época apreciaron la necesidad de una institución que preparase el camino del euskera y que lo guiase con seguridad por él. Esta institución debía estar integrada por personas expertas. La Academia analizaría las diferencias en el seno del euskera, cubriría sus carencias, fijaría la forma y el significado de las palabras, y establecería una única escritura. Además, trataría los dialectos del euskera como elementos enriquecedores y complementarios entre sí, sin excluir ninguno. Finalmente, esta institución establecería un modelo lingüístico claro, depurado, adecuado y útil para todos los ámbitos del conocimiento. Así imaginaron Euskaltzaindia los representantes institucionales de Araba, Bizkaia, Gipuzkoa y Navarra de aquella época, cuando promovieron una academia para todo el ámbito del euskera.

Ahora que celebramos el centenario de la creación de Euskaltzaindia, también celebramos el 50 aniversario del nacimiento del *euskera batua*. En el año 1918 se dieron aquellos primeros pasos para la constitución de Euskaltzaindia, que ha sido la institución que ha guiado la creación y la formación del *euskera batua*.

Este año se han cumplido 50 años desde que Euskaltzaindia organizó el Congreso de Arantzazu. A menudo, ese congreso es considerado como el punto de partida del *euskera batua*. Los proyectos, esfuerzos e intentos para crear el *euskera batua* habían comenzado con anterioridad –para la creación del *euskera batua* tuvo especial relevancia el Congreso de Baiona de 1964–, pero fue el Congreso de Arantzazu el que proporcionó un punto de partida sólido y formal importante al proceso de creación del *euskera batua*, es decir, su punto de partida; a partir de 1968 el *euskera batua* ha avanzado rápido y firme, proporcionando a la sociedad un instrumento fructífero y eficaz para utilizar el euskera con normalidad en cualquier campo o ámbito de uso.





Euskaltzaindia sortu eta 60 urte geroago, Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatutuak erakunde aholku-emaile ofizial izendatu zuen euskararen gaietarako. Aurrekoan legez, garai horretako euskal herritarren ordezkari instituzionalek proposatu eta euskal herritarrek ontzat hartu zuten Euskaltzaindiaren gidaritzaz berezko hizkuntza eta ofiziala dugun euskararen zaintzan. Katea ez zen orduan eten, eta gaur eta hemen katea eten ez dela argi agertu nahi dugu Legebiltzarrean gaur egungo ordezkari instituzionalok, Euskaltzaindiaren ehungarren urteurrena ospatu ez ezik, bere lana neurritz eta jakinduriaz egiten iraun dezan, bere leloak azaltzen duen moduan: ekinez eta jarraituz.

Euskarak egun duen egoera ezin da ulertu euskararen Akademiaren lana gabe. Izan ere, orain dela berrogeita hamar urte, Arantzazun egindako batzarrean, gaur egungo euskara batuaren lehen oinarriak finkatzen hasi zen Euskaltzaindia. Euskaltzaindiak orduan ekin zion bidean jarraitu du eta hau gizarte osora zabaldu da.

Erabilera normalizatua duen hizkuntza orok, eta erabilera horretan arrakastaz jardun den hiztun-elkarte orok, sortu du hizkuntzaren eredu estandarra, horretarako eredu bati edo besteari jarraiki, eta euskaldunek ere halaxe egin dute, bidean zailtasun eta gatazka ugari gaindituz.

Izan ere, euskararen garapenean ezinbesteko izan diren baliabideetan –literatura, hedabideak, ikastetxeak, unibertsitatea, administrazioa, euskalduntze-alfabetatzea, kultur ekoizpena...– euskara batua nahitaezko tresna izan da administrazio, gizarte eragile eta herritar ororentzat, guztia Euskaltzaindiaren eraginpean.

Euskararen Akademiaren ehungarren urteurrenaren ekitaldien baitan, 2018ko urriaren 4an, 5ean eta 6an Euskaltzaindiak berak jardunaldi akademikoak antolatu ditu Arantzazun, hain zuzen ere duela 50 urte han bertan egindako batzar hura egin zeneko data berdinetan, euskararen batasuna aztergai duela. Egun eta jardunaldi esanguratsuek izan ziren ordukoak, eta esanguratsua ere da euskara batuaren inguruan gaur den egunean ere egiten ari den ahalegina eta lana, ordukoari jarraipena ematen diona.

Hau guztia dela eta, Euskaltzaindiaren lan horrek merezi duen aitortpena zabaltzeko, gure

Casi sesenta años después, el Estatuto de la Comunidad Autónoma Vasca nombró organismo asesor oficial a Euskaltzaindia para temas relacionados con el euskera. Al igual que en la ocasión anterior, los representantes institucionales de la ciudadanía vasca propusieron –y la ciudadanía vasca aprobó– que Euskaltzaindia dirigiese el cuidado de nuestra lengua propia y oficial, el euskera. La cadena no se rompió entonces, y hoy, aquí, los y las representantes institucionales actuales queremos manifestar con claridad que la cadena sigue sin romperse, gracias a lo cual, además de celebrar su centenario, Euskaltzaindia continúa desempeñando su labor con tesón y perseverancia, como reza su lema (*Ekin eta jarra*).

La situación actual del euskera no puede entenderse sin la Academia de la lengua vasca. Precisamente, hace cincuenta años, en el congreso celebrado en Arantzazu, Euskaltzaindia comenzó a fijar las bases fundamentales del *euskera batua* actual. Euskaltzaindia ha avanzado por la senda creada entonces y esa labor se ha extendido al conjunto de la sociedad.

Toda lengua de uso normalizado, y todas las comunidades de hablantes con éxito en ese uso, han creado un modelo lingüístico estándar, según un modelo u otro, y los vascoparlantes también lo han hecho así, superando numerosas dificultades y conflictos en el camino.

De hecho, entre los recursos que han sido imprescindibles para el desarrollo del euskera – literatura, medios de comunicación, centros de enseñanza, universidad, administración, euskaldunización-alfabetización, producción cultural...– el *euskera batua* ha sido un instrumento imprescindible para todos los agentes sociales y para toda la ciudadanía, todo ello bajo la influencia de Euskaltzaindia.

Dentro de los actos conmemorativos del centenario de la Academia de la lengua vasca, la propia Euskaltzaindia ha organizado unas jornadas académicas en Arantzazu los días 4, 5 y 6 de octubre de 2018, precisamente en las mismas fechas en las que se celebró aquel congreso allí mismo, hace cincuenta años, para analizar la unificación del euskera. Aquellos fueron días y jornadas significativas, y significativos son también el esfuerzo y la labor que se están realizando actualmente en torno al *euskera batua*, dando continuidad a lo de entonces.

Por todo ello, para expresar el reconocimiento del que es merecedor este trabajo,





egoitzan bihar euskararen Akademiak osoko bilkurak egingo duen bileraren bezpera honetan, gaur eta hemen, Eusko Legebiltzarrak Euskaltzaindiaren lana aintzat hartu nahi du.

Eusko Legebiltzarrak euskara batuaren sorrerak euskararen historian eta, halaber, euskararen normalizazioan duen garrantzia aitortzen du, euskara gizarte bizitzako hainbat jardunetara normaltasunez hedatu ahal izateko ezinbesteko tresna izan baita.

Eusko Legebiltzarrak euskararen etorkizunean eta garapenean euskara batuak izan behar duen garrantzia eta egitekoa aitortu eta azpimarratu nahi du, eta berretsi egiten du gizarte-erabilera orotarako duen balioa, euskara batua bera hizkuntzaren normalizazio prozesuan ezinbesteko bihurtzen duena.

Eusko Legebiltzarrak euskararen estandarizazioan aitzindariak, pertsonak, elkarteak eta, bereziki, Euskaltzaindiaren ibilbide eta jardun akademiko eta historiko osoa aitortzen eta eskertzen du eta, une honetan, bereziki hizkuntzaren batasunari dagokionez egin duen lana eta ekarpena.

Eusko Legebiltzarrak bat egiten du Euskaltzaindiaren mendeurren ekitaldiekin eta euskal herritar guztiei gonbita egin nahi die bat egin dezaten Euskaltzaindiaren ehungarren urte hau dela-eta izango diren ekitaldiekin".

hoy y aquí, en víspera de la reunión que el plenario de la Academia celebrará en nuestra sede institucional, el Parlamento Vasco desea ensalzar la labor de Euskaltzaindia.

El Parlamento Vasco reconoce la importancia que tiene en la historia del euskera y, también, en su normalización, la creación del *euskera batua*, que ha sido un instrumento indispensable para poder difundir con normalidad el euskera en los diversos ámbitos de la vida social.

El Parlamento Vasco quiere reconocer y subrayar la importancia y la función que ha de tener el *euskera batua* en el futuro y el desarrollo del euskera, y ratifica su validez para todos los ámbitos de uso social, que convierte al propio euskera batua en elemento imprescindible del proceso de normalización lingüística.

El Parlamento Vasco expresa su reconocimiento y agradecimiento a todos los precursores, personas, asociaciones que han participado en la estandarización del euskera y, especialmente, toda la trayectoria y la actividad académica e histórica de Euskaltzaindia, sobre todo su labor y aportación en lo que respecta a la unificación del euskera.

El Parlamento Vasco se adhiere a los actos conmemorativos del centenario de Euskaltzaindia e invita al conjunto de la ciudadanía vasca a sumarse a todos los actos que se celebren con ese motivo".





8. (berria) Adierazpen instituzionala, Kolonbiako bake-prozesuari buruz. [11\11\05\00\00054]

Legebiltzarburuak adierazpena irakurri du.

"Kolonbiako bake-prozesua babesteko taldeartekoak onez hartzen du ELNk sei pertsona askatzea eta bere konfiantza adierazten du laster berriro hasi daitezen elkarrizketak Gobernuarekin.

NBEk egin duen moduan, eta horren hitzak hartuta, Kolonbiako bake-prozesua babesteko taldeartekoa pozten da ELNren eskuetan zeuden sei pertsona horiek askatu dituztelako, eta espero dugu laster elkarrizketak berriro hasi daitezen talde armatu horren eta Gobernuaren artean, elkarrizketa horiek ahalbidetuko baitute indarkeriak jotako lurraldeetako kolonbiarrak hobetu bizi daitezela.

Halaber, espero dugu elkarrizketako une batean akordio batera heldu dadin su-etena buruz, horrek, ziur gaude, gertatu behar ez diren heriotzak ekidingo baititu eta milaka pertsonaren bizitza babestuko baitu. Batzorde Humanitarioak sei pertsona horiek askatzeko egin duen lana ere zoriontzen dugu.

Era berean, gogorarazten dugu Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioak bahituak hartzea debekatzen duela. Bahituak hartzeak min sakona dakar eta ondorio sendagaitzak eragiten ditu askatasuna kendu zaien pertsonengan, horien familietan eta gizartean.

Azkenik, onez hartzen dugu Pedro Sánchez Espainiako Gobernuko lehendakariak bake-prozesua laguntzeko adierazi duen borondatea; prozesuari orain arte lotuta egon diren nazioarteko organismoei eskatzen diegu jarraitu dezatela akordioak eta akordio horiek inplementatzeko urratsak sustatzen; eta, halaber, lan horretarako dugun prestutasun osoa adierazten dugu".

8. (nuevo) Declaración institucional sobre el proceso de paz en Colombia. [11\11\05\00\00054]

La presidenta da lectura a la declaración.

"El intergrupo de apoyo al proceso de paz en Colombia saluda la liberación de seis personas por parte del ELN y confía en la pronta reanudación de los diálogos con el Gobierno.

Tal y como lo ha hecho la ONU, y tomando sus palabras, desde el intergrupo de apoyo al proceso de paz en Colombia celebramos la liberación de las seis personas, que se encontraban en poder del ELN, y esperamos una pronta reanudación de los diálogos entre este grupo armado y el Gobierno, ya que estos permitirán un mejor vivir para los colombianos y las colombianas que se encuentran en territorios afectados por la violencia.

Esperamos también que en algún momento de los diálogos se llegue a un acuerdo sobre un cese el fuego, que estamos seguros prevendrá muertes innecesarias y protegerá la vida de miles de personas. También felicitamos a la Comisión Humanitaria por su trabajo en la liberación de estas seis personas.

A su vez, recordamos que el Derecho Internacional Humanitario prohíbe la toma de rehenes. Tomar rehenes causa profundo dolor y provoca consecuencias difíciles de sanar, tanto en las personas privadas de libertad como en sus familias y en la sociedad.

Finalmente, saludamos la voluntad mostrada por el presidente del Gobierno español Pedro Sánchez de acompañar dicho proceso de paz; pedimos a los diferentes organismos internacionales involucrados hasta ahora que sigan promoviendo tanto los acuerdos como los pasos para su implementación; y, asimismo, mostramos nuestra plena disposición para esta labor".

